



## Antxiñako fotografia



### Larraña auzua 1960ko hamarkadiaren hasieran

**B**ai, garai bateko **Larraña behekoa** eta **goikua** ditugu, **Olakua** eta **San Lorentzo** etxe-poligonoak jasoten hasi baiño lehentxuagokua. Itxura batian eztao fotografia honek komentaitako askotzarik, baiña apur bat erreperau ezker, badira aittaketako moduko gauzak. Hasteko, Larraña auzoko inguru honek lur oso egogixak eukala labrantzarako; paraje launetan edota aldapa haundi barikuetan agiri dira soruak; gehixenian garixa daguela emuten dau, ebateko zain, azkenengotakuak seguruenik, handik urte gutxira gari-ereittiari jare egin xakon-eta. Eguzki-begixan dagunez, leku ibargixa da Larrañako inguru hori eta aproposa garittarako.

Argazkixan erdi hutsik agerketan badira be, erdittik beherako saillok majo bete dira azkenengo berrogeta bost urte honeittan: hor eraiki ziran 1960-1970eko hamarkadetan **San Lorentzoko ikastetxe-multzua** (hasieran agustiño laterandarren seminarixua zana eta gaur egun ETEO, Larraña institutua etab.), **Olakua** eta **San Lorentzoko etxe-poligonoak**, eta oraiñago **Ugarkaldekua**. Horretarako dozena bat baserri eretsi bihar izan ziran, Larraña behekuak danak. Fotografixiaren harrapaitten dauen barreneko parte horretan **San Lorentzo ermittia** geratu da bakarrik; desagertu, barriz, kamiño ondoko **San Lorentzoren santutxua**, **Danbolingua** eta **San Lorentzo baserrixak** ermitta inguruan, eta **Zulatzena** goratxuago ezkerretara.

Goiko aldiak antzera samar jarraiketean dau, soro barik, jakiña, (orain, ortu batzuk kenduta, ixa dana zelai dago) eta txalet barri batzuekin. Zutik irauten dauen baserrixak honeitxek dira behetik gora: behe-behian eskumatara **Ugarkalde**, erdittik gorakuen artian **Aramaixuena** lehenengo, **Erbiaña-Sesiñena** eta **Pullangua Orueta** auzunan hurrengo, **Leibar** goratxuago, **Obixaga** goixenian, eta honen ezkerretara **Urubil**; Pullanguaren atzian **Uriko azpikua** somaitten da. Santutxutik, kamiñuaren gaiñekoaldetik, eskumarantz doian illaratxo illuna Ugarkaldeko presatik Olakuara datorren **malatutxua** dala dirudi, kanal txiki historikua, orainddiok be ahatak dagozen potzura ura dakarrena. Argazkixa, garbi dago, agustiñuak San Lorentzon seminarixua egitten hasi ziranekua da, 1964 ingurukua. Handik hillabete batzuetara ekin otsain Olakuako lehenengo etxebizitzak jasotiari

J. E.

Fotografixa Udaleko Argazki-fondotik eskuratu dogu.